

ZAS!

Zurrumurruen | Red Vasca
Aurkako Sarea | antiRumores



Migrazio Kontuak

¿Chismes migratorios?

Soraluze




01.

Gipuz — koa

01 Nola dago osatuta atzerritar biztanleria?

2018an, erroldako azken datu ofizialetan, Gipuzkoan 720.600 pertsona bizi ziren eta horietatik 646.700 Espainian jaioak ziren eta nazionalitate espainiarra zuten. Biztanleriaren % 89,7 dira. Beste era batera esanda, **Gipuzkoan bizi diren hamar pertsonatik bederatzi dira bertakoak.**



Gipuzkoako biztanleriaren banaketa. **Behin betiko errolda, 2018**

Dena den, badira beste pertsona autoktono batzuk, 5.400, Gipuzkoan edo inguruan jaio arren atzerritar nazionalitatea dutenak. Bertakoak dira jaiotzez. Gehienak espainiar nazionalitatea ez duten immigranteen seme-alabak dira. Pertsona afrikarren ondorengoak izaten dira, eta haiei gehiago kostatzen zaie espainiar nazionalitatea lortzea: dena ondo joanda ere, hamabost urte baino gehiago behar izaten dute.

Badira, halaber, 22.700 pertsona, atzerrian jaio izanik jada espainiar nazionalitatea dutenak; askotan latinoamerikarrak izaten dira, hamar urte baino gehiago hemen bizitzen daramatenak eta horrek nazionalizatzeko aukera eman die, latinoamerikar

jatorrizko pertsonen izapideak eta baldintzak arinagoak zaizkielako. Gipuzkoako biztanleria osoaren % 3,1 dira.

Azkenik, atzerritartzat, bere zentzu hertsian, hartzen ditugun pertsonen kolektiboa dugu, alegia, atzerrian jaio izanik artean atzerritar dira, nahiz eta denbora pasa ahala nazionalizatzen joan. Hori bai, jatorri batzuk beste batzuk baino lehenago. Biztanleria hori % 6,4 da.

Autoktonoa ez den biztanleria tipologia hori guztia, "aloktono" hitz tekniko erabiliz, hartzen dugu atzerritar jatorriko populaziotzat.

Nazionalitatea	Jaioterria		Guztira
	Espainia	Atzerritarra	
Espainiarra	646.670 [89,7%]	22.688 [3,1 %]	669.358 [92,9 %]
Atzerritarra	5.413 [0,8]	45.821 [6,4 %]	51.234 [7,1 %]
Guztira	652.083 [90,5%]	68.509 [9,5%]	720.592 [100 %]


Gipuzkoan bizi den biztanleriaren banaketa, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera, **kopuru absolutuak eta portzentajeak, 2018**

Zer esan nahi du horrek guztiak? Bada, **atzerriko immigrazioa** —bai jaiotze erakoa, bai ondorengotza erakoa— geratzeko etorri dela eta modu iraunkorrean hemen bizitzeko. Gipuzkoan, non **dagoeneko % 10 den**, kopuru hori hazten joango da hurrengo urteetan; ez gehiegi, baina bai etengabe eta pixkanaka. Gaur-gaurkoz 74.000 pertsonaz ari gara hitz egiten.



Atzerritar jatorriko biztanleak jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera, **2018, kopuru absolutuak**

Hazkunde kuantitatiboa ez ezik aldaketa kualitatiboa ere ikusten dugu: pertsona asko ditugu jada nazionalizatuta, eta beste batzuk hemen jaioak baina atzerrikoak; eta egoera-aniztasun horrek guztiak gero eta tratamendu errealistagoa eskatzen du eta kasu bakoitzera egokitua, finkatze ereduko immigrazioa delako. Errealitate hori onartzea, harrera egitea ibilbide ondo zehaztutakoekin, funtsezkoa da gero eta anitzagoa izango den etorkizunerako.



Atzerritar jatorriko biztanleen eboluzioa Gipuzkoan, **2007-2018**

02 Eta, Gipuzkoan, nola banatzen da eskualdeka?

Gipuzkoako atzerritar jatorriko biztanleen % 45,5 Donostialdean bizi dira, eta biztanle guztien % 44,4 amerikarrak dira, gehienak latinoamerikarrak.



Donostialdea 33.640 [45,5%]
 Bidasoaldea 10.247 [13,9%]
 Goierri 7.502 [10,1%]
 Urola Kosta 6.806 [9,2%]
 Debabarrena 6.068 [8,2%]
 Debagoiena 5.130 [6,9%]
 Tolosaldea 4.529 [6,1%]

Donostialdea [45,5%]
 Goierri [13,9%]
 Tolosaldea [10,1%]
 Urola Kosta [9,2%]
 Debagoiena [8,2%]
 Bidasoaldea [6,9%]
 Debabarrena [6,1%]




Atzerritar jatorriko biztanleen banaketa Gipuzkoako eskualdeen arabera, **2018, zifra absolutuak eta portzentajeak**

Ondoren,

- Ia % 14 Bidasoaldean bizi dira, % 10,1 Goierriin, eta % 9,2 Urola kostan
- % 8,2 Debabarrenean, % 6,9 Debagoienan eta % 6,1 Tolosan.

Beste era batera esanda, grafikoan ikusten den bezala, **atzerritar jatorriko 100 pertsonatik 45,5 Donostialdean bizi dira**, eta ondoren, ordenaren arabera, Bidasoaldean, Goierriin, Urola Kostan, Debabarrenean, Debagoienan eta Tolosaldean.


Portzentajeak borobilduz, eskualde bakoitzean biztanleen antzeko proportzio bat egoten da. Autoktonoen eta atzerritarren antzeko portzentaje bat dago, aldaketa txiki batzuekin. Antzekotasuna dago Donostialdean, non bertako zein atzerritar jatorriko biztanleriaren % 46 bizi den. Gainerako eskualdeetan desberdintasun batzuk daude. Goierriin, Debabarrenean eta Bidasoaldean atzerritar jatorriko proportzio gehiago dago autoktonoena baino. Tolosaldean, Urola Kostan eta Deba Goienan, aitzitik, kontrakoa gertatzen da.



03 Atzerritar jatorriko biztanleriaren jatorriak

Euskal Autonomia Erkidegoan, atzerritar jatorriko biztanleen artean, Latinoamerikako pertsonak dira nagusi. Gipuzkoan ere finkatutako pertsonen % 44,4 dira. % 27 europar nazionalitateetatik datoz eta % 20,7 Afrikatik. Asiatik, % 7,6 finkatu da. Ozeaniako biztanleak oso gutxi dira, % 0,2.


Euskadin ez bezala, Gipuzkoan, europar jatorriko populazioaren pisu handixeagoa dago eta gutxiago afrikar populazioarena. Baina grosso modo euskal ereduari jarraitzen dio.



Zehatzuz gero, gehienak Latinoamerikatik eta Erdialdeko Amerikatik datoz, % 42 baino gehiago. Europar Batasunetik % 22,1. Magrebetik % 14,9, eta gainerako herrialdeen garrantzia gero eta txikiagoa da, eta gutxitan gaintzen du % 5. Azpimarratu behar da Europar Batasunean funtsezkoa dela Bidasoaldeko eskualdea eta Gipuzkoa eta Iparraldearen artean dauden biztanleria-fluxuak; hala, mugaren bi aldeetan jatorri- eta hizkuntza-ezaugarri oso antzekoak izan ditzaketen pertsonen ondoko estatuko nazionalitatea


izan dezakete, eta horietako bakoitzean atzerritarra dela ageri da. Alegia, gipuzkoar jatorriko pertsonak Iparraldean bizi dira eta Iparraldekoak Hegoaldean.

Gipuzkoako kasuan, garrantzitsua da Erdialdeko Amerikatik etorri berriak diren biztanleen pisua, esaterako, nikaraguar jatorriko biztanleria, eta, bestalde, Pakistandar jatorrikoa, azken hori Asiako biztanleen artean nazionalitate pisutsuena izanik, baita Txinakoaren gainetik ere.



Gipuzkoako jatorriak eskualdekoekin alderatzen baditugu, desberdinasun batzuk ikus daitezke lurraldeka:

- **Debabarreko** eskualdeak afrikar biztanleriaren intentsitate handiagoa du (% 39,5) Gipuzkoako osoarenak baino (% 20,7).
- **Goierrikoak** (% 42,4) eta **Bidasoaldekoak** (% 34,8) europar jatorriko populazio handiagoa du Gipuzkoakoak baino (% 27).
- **Donostialdekoak** amerikar jatorriko populazio handiagoa du (% 53) Gipuzkoakoak baino (% 44,4).



Atzerritar jatorriko biztanleriaren osaera Gipuzkoako eskualdeen arabera, **2018, portzentajeak**

Desberdintasun horiek doinu beraren gaineko bariazioak dira, baina azpimarratu behar da egokitzapen horiek eskualdeen arteko diferentzietan zor zaizkiela. Donostialdeak, adineko biztanle gehiago izanik eta industria gutxiago, pertsona gehiago behar ditu zainketen eremurako eta zerbitzuen ekonomia tertziarizaturako; eta eremu horretara ondo egokitzen da Latinoamerikako biztanleria, bereziki emakumeak.

Goierrirena ez ohiko kasua da Euskadin. Industria presentzia handiago du eta etorkinek prestatuago egon behar dute ingurune horretara eta bertako lan-ohituretara hobeto egokitzeke, eta, horregatik, Europa erdialdeko biztanleria behar da, batez ere Errumaniakoa.

Gipuzkoako Debabarrenak Ermua-Eibar-Elgoibar ardatzaren ereduari jarraitzen dio; izan ere, joan den mendeko 70eko hamarkadaren hasieratik jada

beteranoa den migrazio batek immigrazio berria erakarri du, eta ardatz horretan oso garrantzitsua da magrebtar populazioa, inguru horretan nagusi dena.


Bidasoaldeko kasuan, esan dugun bezala, bere espezifikotasuna zera da: mugaren alde batean eta bestean dagoen kokagunerako porositate handiko muga-gunea izatea.

Desberdintasun txiki baina garrantzitsu horiek erakusten dute zenbateraino egokitzen den immigrazioa, ia suitzar zehaztasunez, tokian tokiko premietara. Eskualdeko alde txikiak jatorrizko diferentziak dakartzate berekin, eta horrek indartu egiten du migrazioak atzerritartasun legeek eta, batez ere, tokiko beharrek baldintzatuta daudelako ideia. Zerbitzuak behar diren lekuetan, premia horiek betetzera etortzen dira pertsonak, eta industria-beharretan, berriz, bestelako pertsonak eta jatorriak.


04 Fluxuen feminizazioa funtsezko beste ezaugarri bat da

Gipuzkoan bizi den atzerritar jatorriko biztanleen % 52,2 emakumeak dira. Egia da migrazio prozesua heltzen joan ahala populazioak ere sexuaren arabera orekatuz jotzen duela. Nolanahi ere den, ikuspegi kuantitatibo hutsetik, migrazioen feminizazioaz ari garenean, adierazi nahi dugu ezen, orain, emakumeak direla —historian zehar ez bezala— mugimendu horietako askoren protagonista eta aitzindari. Ikuspuntu kualitatibotik, horrek adierazten digu enplegu-sektore eta merkatu horiek, genero-arrazoiengatik emakumeei zuzenduak egon direla eta daudela.

Immigrazioaren euskal eredu feminizatua da eta gipuzkoarra era bai. Hori azaltzeko, ikus ditzagun datu orokor batzuk, eta atzerritarren jatorrizko herrialdeen feminizazio-maila aztertu. Gizonezko gehien duten jatorrien artean, Pakistan da nagusi (% 31 bakarrik dira emakumeak), ondoren, Afrikako gainerako herrialdeak (% 38,4) eta Magreb (% 40,5). Emakumezko gehien duten jatorrien artean Latinoamerika gailentzen da (% 62,6). Izan ere, atzerritar jatorriko emakume guztien % 51 latinoamerikarra da, eta latinoamerikarren kolektiboa biztanleria horren guztiaren % 42,5 da.




Gipuzkoako atzerritar jatorri eremuetako feminizazio tasa, **2018, portzentajeak**



Gipuzkoako atzerritar jatorriko emakumeen jatorri eremuak, **2018, portzentajeak**

Datu hori eskualdeka ere islatzen da; izan ere, Latinoamerikako biztanleriaren ehuneko handiena dagoen lekuetan dago zainketen sektorerik nabarmenena. Kasu honetan, Gipuzkoako lurralde historiko osoko ereduaz ari bagara ere, Donostialdea nabarmentzen da, emakumeen % 54,7rekin.


Gainerako eskualdeek datu esanguratsuak ematen dizkigute: Debabarrenean Afrikako biztanleriak pisu handiagoa duenez, gizon gehiago daude emakumeak baino, eta Goierriin dago gizon-tasa handiena (% 50,9), eskulan industrialagoa behar dutelako



Atzerritar jatorriko biztanleria Gipuzkoako eskualdeen arabera eta sexuen arabera, **2018, portzentajeak**

Azkenik, atal honetan interesgarria da ikustea immigrazioaren euskal ereduak nola joan den pixkanaka immigrazio femeninorantz lerratzen, urtez urte nazionalitateen feminizazio-maila gero eta handiagoari erreparatzen badiogu.

Latinoamerikar nazionalitateen feminizazioa iritsiera-urtearen arabera, **2018, portzentajeak**




Azkenik, hona hemen Gipuzkoan finkatuta dauden hoge nazionalitate nagusien feminizazio-maila.

Gipuzkoako hoge nazionalitate nagusienak sexua tasaren arabera, **2018, zifra absolutuak**



05 Xehetasun esanguratsuak eta intereseko kontu batzuk


Gipuzkoako nazionalitaterik garrantzitsuena Maroko da, 9.000 pertsona baino gehiagorekin, ondoren **Errumania** (5.628) eta **Nikaragua** (5.119) daude. Jarraian, kontinente guztietako nazionalitateak ditugu, baina guztien artean azkenak etortzen izan diren Nikaragua eta Honduras nabarmendu behar dira.




Nazionalitatea	Sexua		Guztira	%
	Gizonezkoak	Emakumezkoak		
Maroko	5.309	3.708	9.017	12,2
Errumania	3.001	2.627	5.628	7,6
Nikaragua	1.323	3.796	5.119	6,9
Kolonia	1.766	2.576	4.342	5,9
Honduras	1.105	2.620	3.725	5,0
Portugal	2.158	1.545	3.703	5,0
Ekuador	1.568	1.881	3.449	4,7
Frantzia	1.436	1.369	2.805	3,8
Argentina	1.220	1.230	2.450	3,3
Pakistan	1.635	734	2.369	3,2
Dominicar Errep.	730	1.275	2.005	2,7
Brasil	626	12.36	1.862	2,5
Argelia	1.028	669	1.697	2,3
Txina	709	967	1.676	2,3
Ukrainia	744	922	1.666	2,3
Venezuela	737	893	1.630	2,2
Peru	738	882	1.620	2,2
Kuba	587	950	1.537	2,1
Bolivia	567	954	1.521	2,1
Senegal	1.112	297	1.409	1,9
Beste	7.237	7.455	14.692	19,9
Guztira	35.336	38.586	73.922	100,0

Gipuzkoako nazionalitate kopurutsuenak, 2018, zifra absolutuak eta portzentajeak

Atzerritar biztanleriaren portzentajerik handiena **Ordiziari** dagokio, % 18,8rekin. Atzetik dituen herri gehienak ere Goierrikoak dira: Zaldibia, Beasain, Ikaztegieta, Leaburu, Ormaiztegi, etab.




Nolanahi ere, immigrazio-portzentajea ez dator bat nahitaez atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumenarekin. Bolumenaren arabera, Donostiako hiriburua da populaziorik handiena duena, eta ondoren datoz Irun, Errenteria eta Eibar.



Hamar nazionalitate garrantzitsuenen banaketa aztertuz gero, diferentzia esanguratsuak ikus daitezke. Magrebtar jatorriko populazioa lurralde osoan zehar dago banatuta, baina presentzia handiagoa du Debabarrenean eta txikiagoa Donostialdean. Errumaniar jatorrikoen kasuan, hamarretik lau Goierrialdean bizi dira. Beste herrialde batzuk, hala nola Nikaragua, Kolonia, Honduras, Ekuador eta Argentinak beren populazioaren erdia baino gehiago Donostialdean dute.

Honduraseko jatorria duen biztanleriaren kasuan, lautik hiru. Nazionalitate frantsesa duen populazioa, Donostialdeaz gain, Bidasoaldean bizi da nagusiki. Azkenik, pakistandar biztanleria Gipuzkoa barrualdeko eskualdetan dago finkatuta.


Gipuzkoako 10 nazionalitate garrantzitsuenen banaketa eskualdeetan, 2018, portzentajeak



Espainiar nazionalitatea lehenen lortzen duten kolektiboak latinoamerikar jatorrikoak dira, estatutako eta nazioarteko legedia dela kausa. Latinoamerikar jatorri batzuetan dagoeneko nazionalizatutako populazioa % 60 dira. Kasu batzuetan, Gipuzkoan bizi diren hamar pertsonatik

sei edo zazpi. Beste batzuetan, Boliviaren kasuan, esaterako, ez dira kopuru horietara iritsi, geroago etorri zen kolektibo bat delako. Eta azken bi jatorriak ditugu, Nikaragua edo Honduras, hurrenez hurren nazionalizatutako % 12 eta % 14rekin, oso berriak direla adierazten digutenak.





● Espainian / Atzeritarra ● Atzerrian / Atzeritarra ● Atzerrian / Espainiarra

Gipuzkoako 20 nazionalitate nagusien nazionalitate-tasa, 2018, portzentajeak

Bestalde, nahiz eta aspalditik hemen finkatuta egon, **Maroko** (% 17), **Algeria** (% 12) eta **Senegal** (% 11) bezalako nazionalitateek erakusten digute zaila, luzea eta garestia dela nazionalitatea lortzea herrialde horietako jatorria dutenentzat. **Pakistan** (% 7) ere azken horien artean dago.

Datu orokor horiek erakusten digute immigrazioa egokitzapen-prozesu motel bat dela helmugako

gizartean zehazten doazen premia batzuen eta horiek konpon ditzaketen kolektibo potentzial batzuen artekoa; eta egokitzapen horri gehitu behar zaizkiola hobeto edo okerrago gainditzen diren zailtasun administratibo, legal eta materialak. Baina *zaurgarritasun-kate* ikusgarriago bat dagoen bezala, *erregulartasun-continuum* ikusezinago bat ere badago.





02.

Soralu — ze

2018ko behin betiko eroldaren arabera, **Soraluzek 3.894 biztanle ditu. Jatorriz atzerritarak dira horietatik 478**, eta biztanleriaren % 12,3 dira, atzerriko 29 herrialdeetakoak.

Jatorriz atzerritar diren horietatik:

- Espainian jaiokoak dira 52, baina atzerritar nazionalitatea dute, gurasoek ez dutelako eskuratu espainiar nazionalitatea. Izan ere, Espainian jaiotzeak ez du nazionalitatea ematen, askotan pentsatzen den moduan. Era berean, gehienak

afrikarren ondorengoak dira, eta pertsona horiei beste kontinenteetako baina askoz nekezagoa zaie nazionalizazioa lortzea. Espainian gehien nahi den eta sustatzen den biztanleria latinoamerikarra da.

- 101 pertsona atzerrian jaioko eta espainiar nazionalitatea dute, migrazioa gero eta sendoagoa den seinale.
- Azkenik, atzerrian jaioko eta atzerritar nazionalitatea duten 325 bizilagun daude.

Nazionalitatea	Jaiolekua		Biztanleria guztira
	Espainian	Atzerrian	
Espainiarra	3.416	101	3.517
%	87,7	2,6	90,3
Atzerritarra	52	325	377
%	1,3	8,3	9,7
Guztira	3.468	426	3.894
%	89,1	10,9	100

Soraluzeko biztanleria jaioleku eta nazionalitatearen arabera, **2018, portzentajeak eta zenbaki absolutuak**


Jaiolekua / Nazionalitatea	Soraluze			%		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Espainian / Atzerritarra	28	24	52	5,9	5,0	10,9
Atzerrian / Atzerritarra	172	153	325	36,0	32,0	68,0
Atzerrian / Espainiarra	51	50	101	10,7	10,5	21,1
Guztira	251	227	478	52,5	47,5	100,0

Soraluzeko atzerriko biztanleria jaioleku, nazionalitate eta sexuaren arabera, **2018, portzentajeak eta zenbaki absolutuak**


Jatorriz atzerritar izanik Soraluzen bizi den biztanleria apur bat maskulinoa da, bertan kokatutako etorkin gehienak magrebtarrak baitira, % 45,2. Jatorriz amerikarrak dira % 26,7, eta europarrak % 12. Azkenik, aipatzekoak dira pakistandarrak (% 7,3), baina biztanleriaren oso bolumen urria da. Soraluzen bada datu esanguratsu bat: Bizkaian Ermuak eta Gipuzkoan Eibarrek osatzen duen ardatzaren jarraipena da hein batean, **magrebtarrak aspalditik kokatu dira bertan eta horrek efektu traktorea eragin du.**

Soraluzeko atzerri jatorriko biztanleria nazionalitate eremu eta sexuaren arabera, **2018, portzentajeak eta zenbaki absolutuak**

	Atzerriko Biztanleria			Sexu Banaketa			%
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
BE 15	21	11	32	66	34	100	6,7
BE 28	12	10	22	55	45	100	4,6
Gainerako Europa	2	1	3	67	33	100	0,6
Magreb	127	89	216	59	41	100	45,2
Gainerako Afrika	15	19	34	44	56	100	7,1
Iparamerika	0	1	1	0	100	100	0,2
Zentroamerika	15	31	46	33	67	100	9,6
Hegoamerika	30	51	81	37	63	100	16,9
Txina	0	1	1	0	100	100	0,2
Pakistan	25	10	35	71	29	100	7,3
Gainerako Asia	4	3	7	57	43	100	1,5
Guztira	251	227	478	53	47	100	100




Soraluzeko atzerri jatorriko biztanleria nazionalitate eremuen arabera, **2018, portzentajeak**



Soraluzeko atzerri jatorriko nazionalitate garrantzitsuenak, **2018, zenbaki absolutuak**

Nazionalitateei begira, jaun eta jabe dira jatorriz marokoarrak: hamar atzerritarretik lau. Jarraian datoz, baina oso urruti, Pakistan, Afrikako beste herrialde batzuk, eta latinoamerikarren presentzia nahiko hutsala da. Debabarrenako edo Eibarren inguruko eredia jarraitzen du Soraluze, eta jatorriak nahiz nazionalitateak oso desberdinak dira Gipuzkoako batez bestekoaren aldean.





03.

Zurrunu — rruak

Fenomeno iragankorra al da immigrazioa?

Badirudi ezetz, eta hala berresten dute migrazioetan aditu direnek. Haziz doa Europara joango den immigrazioa, eta, haren ezaugarri nagusia da, lehenik, gure premien arabera aukeratutako immigrazioa bat dela. Eta, bigarrenik, ezin ditugu saihestu Nazio Batuen Populazioaren Dibisioak egindako aurreikuspenak Afrikako biztanleriari buruz, zeina mende amaierarako laukoiztu egingo baita. Izan ere, 1950eko 229 milioi pertsonetatik 2017ko 1.247etara pasatu da dagoeneko.

Guk aukeratzeko al dugu immigrazioa?

Jakina. Futbolearen bezala, taldeek dagoen lekuan bilatzen dute behar dutena, beren gaitasun ekonomikoaren arabera. Ezin da ukatu egongo dela **dei-efektutik** zerbait, baina betiere **premia-efektuaren** ondorioz: zer behar duzun, hori eskatuko duzu. Euskadin emakume latinoamerikarrak eskatzen ditugu familia eta zaintza beharrak ase ditzaten, eta gizon latinoamerikarrak zerbitzuen sektorerako. Erdialdeko Europako pertsonak ere behar ditugu, batez ere Goierri aldean. Populazio txinatarrak autoerregulatu egiten da. Afrika iparraldekoa edo Magrebekoa gertu dagoelako etortzen da. Saharaz hegoaldeko biztanleriatik, dagoeneko hemen senideak dituzten ausartak iristen zaizkigu.

Baina aukeratzeko den baino gehiago jasotzen da?

Ez askoz gehiago. Oro har parra egiten da. Askok jota, finkatzen den biztanleriaren % 10 inguru ez da hemengo premiek eragindakoa, eta gehiago iristen da bere beharretatik gurengatik baino. Gainerako kasuetan, guk bidalitako seinaleek —zeinak etortzeko zain dauden hautagaiek jasotzen dituzten— agintzen dute. Beti da aurretik etorritako senide bat hurrengoei deitzen diena. Beti izan da horrela. Immigrazioa fenomeno konplikatu da mugitzen den pertsonarentzat, baina funtzionamiendu erraza du. Hemendik eskatu eta jendea iristen da. Deialdia gelditu eta geratu egiten da. Dagoeneko hemen finkatuta daudenek eskuan semaforo bat duten trafiko-agente gisa funtzionatzen dute. Ekonomia-goraldietan hona datoz; ekonomia-beheraldietan, geratu egiten dira.

Baina ez al da hobe immigrazio arautu bat?

Bai, seguru asko, baina immigrazioa praktikan arautzen da. Bada kontu bitxi bat, kontraesana dirudiena. Krisi garaian, sarri entzun ohi da estatus irregularrean dauden etorkinek beren jatorrizko lekura itzuli beharko luketela. Bada, hona hemen paradoxa: zenbat eta egoera ekonomiko hobea, orduan eta etorkin gehiago iristen dira, eta, noski, orduan eta irregular gehiago. Irregularrak diogu, alegia, administrazioa-arauren bat hausten dutenak. Eredu edo lurralde batean erregularitasun **handia** edo **gehiegi** dagoenean, eremu hori ekonomikoki hilda dagoelako da.



Baina ez al da kontraesana?

Ba, jakina, horixe esan dugu. Galdera hau egin behar genuke: zergatik herrialde **guztiek** egiten dituzte arautzeko legeak uneren batean? Lehenago pribatuan egiten zutena azkenean argi eta publikoki onartzen dutelako, alegia, finkatu diren pertsonak beharrezkoak direla. Lehenengo, harroxko jarri eta inor ez dela sartuko diogu. Gero, itsuarena egiten dugu ez ikusia egiteko. Eta azkenean, arautu egiten da jada esan gabe onartuta zegoena. Hauxe galdetu behar genuke: ikasi al dugu lekzioa? Ez, inolaz ere ez, eta hasierara bueltatzen gara, antzara-jokoan bezala.

Laburbilduz, egiturazko fenomeno al da immigrazioa Euskadin?

Bai, hala da, eta hala izango da. Ez da gustu edo desira kontu bat. Errealitate bat da. Euskadin, 2019an, 225.000 pertsona inguru daude atzerritar jatorrikoak. Zer esan nahi du horrek? Euskadin jaiotako 20.000 haur inguru daudela oraindik atzerriko nazionalitatea dutenak, badirela 70.000 baino gehiago atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra dutenak, eta 145.000 inguru atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea dutenak.

Nacionalitatea	Jaioterria	
	España	Atzerritarra
Espainiarra	1.900.000	70.000
Atzerritarra	16.000	41.000

Hemen jaio eta artean atzerritarrak direnak eta atzerrian jaio eta espainiar nazionalitatekoak direnak egoteak zera adierazten digu: hemen —seguruenik betiko— finkatzea erabaki duen biztanleriaren aurrean gaudela. Datu hau onartu beharra dago errealitate bat delako, eta errealitatea beti nagusitzen da. Zenbat eta lehenago onartu, orduan eta hobeto kudeatuko ditugu harrera- eta finkatze-prozesuak.

“Bai, guk ere iraganean beste herrialde batzuetara emigratu genuen. Baina desberdina zen, gu legez gindoazen, lan-kontratuarekin”

Bada badirudi ez zela zehazki horrela izan. Orduko Lan Ministerioaren arabera, 1960 eta 1965 artean emigrazioaren % 51 librea edo klandestinoak izan zen. Hau da, paperik gabea, legez kontrakoa edo ilegala orain deitzen diegun bezala.

Behin emigratuta, ikuspegia aldatu egiten da ferian kontua nola joan zaizunaren arabera. Saldoa positiboa izan bada, iragana idealizatu eta nahigabeak ahaztu egiten dira.

Hain zaila da erlijio-dibertsitatea arautzea?

Ez, eta lege asko dago helburu horretarako. Uste den baino gehiago. Beste kontu bat da horrelako egoeretan sortzen den alarma soziala, batez ere erlijio musulmanari dagokionean. Beste erlijiorik ez dagoela ematen du. Izan ere, erlijio musulmanaren kasuan, beste erlijioekin, ortodoxoarekin edo ebanjelikoarekin, sortzen ez diren arbuioak sortzen dira.

Paradoxikoki, atzo arte hain fededuna izan den euskal gizartea, eta gaur egun kontrako muturrera joan dena, ez da konturatzen gure herentzia kultural eta erlijiozkoa leku guztietan idatzita dagoela –gure tradizioan, gure eguneroko ohituretan, memoria sozialean, adierazpen kulturetan, bizi-errietan, lan-egutegian– aldi berean laiko sentitzen den bitartean.

Zentzuzkoa da neurri bikoitza erabiltzea gertaera erlijiosora?

Dudarik gabe, ez da onargarria balizko jarrera laizista hori mantentzea eta aldi berean erlijio minoritario jakin batzuetan, erlijio musulmanean esaterako, lupadun begirada jartzea eta gure tradizio erlijiosoen adierazpen publikoei ez ikusiarena egitea. Jarrera honek **katolaizismo** deitu dezakegunaren antza du, eta horrek egiten du auzo bateko biztanleak erlijio-aldaketen aurrean haserretzea, elizen sekularizatzea kritikatzeko, meskitak eraikitzearen kontra egitea, beraiek eliza bat zapaltzen ez duten arren.

Hain bateraezinak gara musulmanak eta gu?

Printzipioz ez. Kristautasunarekin eta judaismoarekin batera, hirugarren erlijio monoteista eta liburuduna osatzen du. Seguruenik ere, elkarren arteko aldeak baino gehiago elkarren antza izango dute. Zonalde berean sortu ziren ia garai bertsuan. Izan ere, erlijio musulmanean kontuan hartzen da, esate baterako, Jesusen figura. Benetan zer denak duen garrantzia baino gehiago, zer iruditzen zaigun da kontua. Eta iruditzen zaigu bi erlijioen artean izugarrizko aldea dagoela eta bateraezinak direla. Pertsona musulman askori ere kristautasunarekiko gauza bera gerta dakieke. Hala eta guztiz ere, estatu espainolak islama errotze nabarmeneko erlijiotzat jotzen du, eta 1989tik aurrera, de facto gutxiengo erlijioso espainoltzat hartzen du. Hori horrela izanik, kontua ez da euskal gizarteak tradizionalki izan duen erlijioaz bestelakoa duten pertsonak integratzea. Kontua da gizarteak eta estatuak erlijio hori euskal eta espainiar gizartearen parte gisa onartzea.

ZAs!

Zurumurruen | Red Vasca
Aurkako Sarea | antiRumores